



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2019ko EKAINA - 205 zenbakia

## Biko gidaritzza berria du elkarteak

**Idoia Trenor Zulaika eta Jon Agirresarobe Lopetegi dira Bertsozale Elkarteko koordinatzaileak.**

Martxoan erreleboa emango zuela iragarri zuen Aritz Zerain Minerrek Bertsozale Elkarteko koordinazio lanetan. Elkartearen dimentsio handia egokiago kudeatzeko eta mugimenduaren aurrerako beharrei hobeto erantzuteko, biko koordinazioaren formularen alde egin du zuzendaritzak egiteko hori betetzeko.

Udaren atarian gauzatu dugu aldaketa: honenbestez, Idoia Trenor Zulaika eta Jon Agirresarobe Lopetegi "Torrotxo" dira Bertsozale Elkarteko koordinatzaile berriak.

Artearen Historian lizentziatua da Trenor, eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa egina du. Gaztetatik hainbat elkartetako kide izan da. Azken urteak euskalgintzan eta feminismoan eman ditu lanean: Euskal Herriko Bilgune Feministan eta Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartean.

Giza Zientziak eta Komunikazioan lizentziatua da Agirresarobe, eta Euskadi Irratian aritu zen esatari lanetan. Azken hamaika urteak Bertsozale Elkartean bertan egin ditu, Sustapen Saileko eragile, eta azken hiru Bertsolari

Txapelketa Nagusien koordinatzailea izan da. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa ere amaitua du berak, eta Kultur Kudeaketako masterra ari da egiten.

Datozen urteei eskarmentuz eta indar berriz, ezagutzaz eta bisio zabalez aurre egiteko moduan izango gara, koordinazio bikoarekin eta lantalde guztiarekin.



**IRATI  
ALCANTARILLA  
URDANPILLETA**  
Sara, 2019-06-08

2019ko Euskal Herriko  
Eskolarteko txapelduna

Doinua: Larogeita hamar urte

Eskerrik asko, Garbiñe!  
Aupa Egoitz, bertsolari!  
Baina jarri nahiko nuke  
zerurantz begira adi:  
"Maribi gogoan zaitut"  
esan nere lagunari.  
Urtez urte aurre egin  
zenion minbiziari  
agur ta ohore gudari.  
Nola indarra atera  
ohi zenion guztiari.  
Nire ustetan naizena  
zor diodanez berari  
Euskal Herriko txapela  
eskeintzen diot kantari  
bizitzari aurre egiten  
erakutsi zidanari.



Idoia Trenorrek eta Jon Agirresarobek hartuko dute Aritz Zerain orain arteko koordinatzailearen lekukoa / XDZ

## Koldo Izagirreraren *Bertsoaren Harria* liburua argitaratu du Lankuk

**Bertsolaritzaren historiaren zati bat irudiz, bertsoz eta gogoetaz findu du Izagirrek bere azken lanean.**

Lankuren eskutik argitaratu da *Bertsoaren Harria* Koldo Izagirreraren lan berria. Testuz eta argazkiz osaturiko liburua da eta bertsozaren historiaren zati bat irudiz, bertsoz, gogoetaz eta kontakizunez josita topatuko dugu bertan.

Izagirreraren lanean hogeita bat bertsoaren eskulturak Euskal Herrian barreiatuak agertzen dira, tinko euren zutarrian. Figuratiboan zein abstraktuan, eskulturok gure kulturaren ondare "abandonatua" dira.

Harriok, brontzeok, hizketan jarri dira idazlearekin, eta idazleak, lantu, kantu, irri eta istorio, paperera ekarri ditu hogeita bat monologo zoragarri. Liburu desberdin bat, ikuspuntu berezi bat, edizio zaindu bat.

Ohiko liburu dendatan eta [www.lanku.eus](http://www.lanku.eus) helbidean dago argitalpena eskuragarri. Udarako irakurketa plan zoragarria.



[www.lanku.eus](http://www.lanku.eus) helbidean eskura daiteke Izagirreraren liburua./Lanku

## Osatuta geratu da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan kantatuko duten bertsolarien zerrenda

**Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea jokatu da udaberrian eta erabakita geratu da nork kantatuko duen udazkenean jokatzeko den txapelketan.**

Amaitu da Gipuzkoa Bertsotan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan kantatzeko sailkapen fasea. Guztira 84 bertsolarik kantatu dute udaberrian eta horietatik 34 lagunek eskuratu dute udazkenean jokatzeko den txapelketan kantatzeko txartela. Horiei aurreko txapelketan finalurrekoetan eta finalean izan ziren bertsolariak batuko zaizkie txapelketa jokatzeko, 14 bertsolari.

Maiatzaren 4tik 25era, sailkapen faseko hamalau saio jokatu dira bi multzotan banatuta, eta bakoitzean puntuaziorik

handiena lortu duten hamazazpi bertsolarik kantatuko dute udazkenean. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko kideek hasierako fasearen balorazio oso ona egin dute.

Uztailaren 16an egingo da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren aurkezpena, Asteasun. Udazkenerako agenda bete-betea dator.



Hamalau saio osatu dute Gipuzkoa Bertsotan fasea. / XDZ

# Mamitsuak izan dira Bertsolamintza jardunaldiak

**Bertsogintzaren inguruko gaiak jorratu dira bost jardunalditan; hitzaldiak eta mahai-inguruak ekarpenekin jantzi dira ziklo osoa osatuz.**

Jendetsua eta edukiz jantzia joan da 2019ko Bertsolamintza. Bost jardunaldik osatu dute zikloa: lau egin ziren maiatzean Iruñan, Senperen, Bilbon eta Gasteizen eta, ekainaren 1ean biribildu zen jardunaldi multzoa Amasa-Villabonako Subijana etxean.

Azken horretan, hizlariak aurreko jardunaldietan esandakoaren zertzeladak eman zituzten eta haien arteko mahai-inguruekin eta bertaratutakoen interesekin, solasaldiak osatu ziren. Amets Arzallus, Sustrai Colina, Maite Berriozabal, Amaia Agirre, Miren Artetxe, Asier Galarza, Eli Pagola eta Xabier Aierdi izan ziren hitzaldiak ematen; eta bi mahai-inguruak

gidatu zituzten Maddi Sarasuak eta Ainhoa Aizpuruak. Beren hitzaldietako muina entzungai dago hizlarien beraien ahotik Bertsoa.eus webgunean, ziklo osoan egin dituzten ekarpenen haritik.

Bertsolamintza jardunaldiak bertsogintzaren inguruko gaien gainean hitzaldiak entzun eta ekarpenak partekatzeko plazak dira. 1994an egin zen lehen Bertsolamintza eta bosgarrena izan da aurtengo hau.



Amasa-Villabonako Subijana etxean egin zen Bertsolamintzako azken jardunaldia / XDZ

# Ikerketa sariak esleitu ditu Mintzola Ahozko Lantegiak

**Bertsolaritzaren inguruko ikerlanak saritu dira: Oihana Iguaranek eskuratu du kontratua eta Jon Gurrutxagaren eta Kepa Matxainen lanek lortu dituzte proiektu sariak.**

*Bertsoaren Agenda.* Agenda Setting-ak bertsolaritzaren diskurtsoan duen eragina proiektuak eskuratu du Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Euskara eta Ikerkuntza Arloko Errektoreordetzek esleitutako ikerketa kontratua. Oihana Iguaranek aurkeztu du eta bertso bidezko diskurtsoak zein agenda duen deskribatzea da asmoa. Ikerketa kontratua UPV/EHUUn gauzatuko du Iguaranek. Urtebeteko kontratua esleitu zaio, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin.

Kontratu horretaz gain, 2.000 euroko bi proiektu sari ere esleitu ditugu Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak. Sarietako bat Jon Gurrutxagaren *Nazio-identitatea, nazio-gatazka eta diskurtsoaren bilakaera Bertsolari Txapelketa Nagusian (2001-2017)* lanarentzat izan da; bestea, Kepa Matxainen *Ahozko hizkeraren balioa bertso*

*kanonaren eraikuntzan: Xabier Amurizatik Maialen Lujanbiora (1980-2017) proiektuarentzat.*

## Udako ikastaroak ate joka

Mintzola Ahozko Lantegiak bertsolaritzaren eta ahozko kultur sorkuntzaren ikerketan eta hedapenean lanean dihardu etengabe, unibertsitateekin batera. Hurrengo geldialdia UPV/EHUko Uda Ikastaroetan izango du *Euskal kulturari so. Bertsolaritzaren artikulazioak* ikastaroan. Bertan izango da, hizlari askoren artean, Oihana Iguaran ikerketa kontratuaren irabazlea ere.

Udako ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago eta matrikula egiteko aukera [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian.



## Puntu jarrita

OIHANA ARANA CARDENAL

Mila esker galdera proposatzeagatik, Majder. Bada garaia gure euskarriei egiten duten lana onartzekoa; ea asmatzen dudan indarra ematen didan sarea zein den esaten.

Beti esan izan dut bertsolaritza munduan egin dudan bidearen hastapena inertiak bultzatutakoa izan dela, ia erabaki gabe sartu bainintzen eskolarteko txapelketen gurpilean, eta, beraz, ohartu gabe jarraitu nuen tarteka saiotxoak egiten. Hala ere, oso argi dut nik gaur egun bertsotan jarraitzea ez dela inertiaren erantzukizuna; zorionez, pausoko erabakitzen hasi naizelako.

Kontzientzia hartzeak dudak dakartza, ahultasuna, ezbaia... Eta behar duzu indarra, behar dituzu besarkadak, eta behar duzu zeure burua txikitzea erabakitzen duzunean berriz osatuko zaituen jendea edukitzea. Jende hori (he in handi batean) Bertso Udalekuek eman didate niri. Gaur egungo oholtzakide direnak, publikoko begirada konplizeak, animo mezu berantiarrak bidaltzen dituztenak... Euskal Herriko txoko galduetan ezagutuak baitira gehienak, erlojurik existitzen ez den hamar eguneko paradisu batean. Beste ezer baino gehiago lagunak izaten erakutsi digute; eta denok dakigu inoiz erortzen bagara, badagoelae errebotean gorantz eramango gaituen sare indartsu bat hor behean, inork egon nahi ez duen lekuan. Udalekuek, beraz, gauza askotan asmatu dute, eta horretan ere bai.

Bestalde, oso une egokian egin didazu galdera, izan ere, *mesanotxetik* kendu berri dut *Kontrako Eztarritik* liburua; mina eta zirrarara eragiteaz gain, gure sarearen zirrikituren batetik erortzen banaiz, edo erori gabe ere, indarra emango didan beste sare irmo bat badagoela erakutsi didana.

Eta hori nire sarea; badira eta inongo jostorratzen beharrik gabe elkartzten diren sareak.

Iruri Altzerrekarentzat nire galdera(k): Zer dauka bertsoak minetik? Eta zirraratik?

# Koplak

## Bi bertso eskola feminista datorren ikasturtean

Irailaren 9tik 20ra arte irekiko da Ahalduzte Bertso Eskolan eta Gizonezkoen Bertso Eskola Feministan izena emateko epea, [www.bertsozalea.eus](http://www.bertsozalea.eus) atarian. Lehen ikasturtea du Gizonezkoen Bertso Eskola Feministak eta bat-batean aritzen diren bertsolarientzako da; aitzitik, Ahalduzte Bertso Eskolaren bosgarren ikasturtea bertsolari zein gai jartzaileei zuzendurikoa da.

## Poto-Finixa



## Bapatean 2018, etxera

Bertsozale Elkarteko bazkideei urtero helarazten zaien oparia iritsiko zaizu laster postaz: *Bapatean 2018*. Urteko bertso bilduma da: 600 bertso baino gehiago daude jasota, eta urteko bertso jardunaren inguruko datuak ere aletzen ditu. Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako materiala baliatu da, borondatez aritzen diren hainbat lagunengandik ahalgintzen emaitza ere badena.



### 14 SORTZAILE JOLASEAN

- Igor Elortza-Joseba Sarrionaindia
- Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte
- Julio Soto-Gorka Urbizu
- Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy
- Andoni Egaña-Ruper Ordorika
- Onintza Enbeita- Maite Berriozabal
- Manex Agirre- Ilaski Serrano

PUBLIZITATEA